

ARRASATE / Biblioteka egunaren inguruan ekintzak datorren astean

Urriaren 24an ospatzen den Biblioteka Eguna dela-eta, Udal Liburutegiak hainbat ekintza antolatu ditu. Urriak 21 astelehenean 'Kontu kantoi' ipuin saioa izango da Santamainako liburutegian 18.00etan 4-6 urteko umeentzat. Urriak 23 asteazkenean, La Tartana Teatro konpiainiak 'El guardian de los cuentos' antzezlanaren taularatuko du Kulturateko areto nagusian 18.00etan 6 urtetik aurrerakoentzat. Urriak 24 ostegunean, bi ipuin saio izango dira toki berean 19.00etan hasita. Boni Ofogo afrikarra (gazteleraz) eta Koldo Amestoy (euskaraz) arituko dira.